I.K.A.

Jordi Vinyes / Montserrat Ginesta

# Hatzamarrak, banan-banan, hamar



Sirena bilduma

Sirena bilduma

# Hatzamarrak, banan-banan, hamar



Egilea: Jordi Vinyes
bizkaieraz: Bibiñe Pujana
marrazkiak: Montserrat Ginesta

I.K.A. Ibaizabal
Zornotza

Eskuko hatzamar danak "makurtuta",
ez dago bat ere altzatuta.



Zero da. Holan idazten da:

– Meloia dirudi ezta ?
– Bai eta kuia ere bai.



Erpurua daukat altzatuta



Bata da. Holan idazten da:





–Sudur luzedun gizontxoa dala esan lei ezta?
–Bai errazoia daukazu. Eta nire esaldi magikoa hauxe da: "Bat Martin parrat"

Hatzamar erpurua eta erakuslea daukadaz altzatuta.



Bia da. Holan idazten da:

-Ahatetxo bat lasai-lasai igerian dirudi ezta?



Hatzamar erpurua, erakuslea eta erdikoa altzatuta daukadaz.



Hirua da. Holan idazten da:


–Tximeletearen hego bigaz, belarritxo bat dirudi.
–Bai, ahatetxoaren ugazaba dan gizontxo argalaren belarritxoa.



Hatzamar erpurua, erakuslea, erdikoa eta eraztunarena altzatuta daukadaz, eta beste eskuagaz txikiari ez deutsat izten altzetan.

Laua da. Holan idazten da:






–Bai, ahatetxoaren ugazaba dan, belarritxo bakarra tximeletearen hegoen antzera daukan gizontxoarena da.

Hatzamar guztiak altzatuta daukadaz.




Bosta da. Holan idazten da:

– Eskegitokiko kakoa dirudi.

– Egia da, ahatetxoaren ugazaba dan, belarritxo bakarra tximeletearen hegoen antzera, eta jesarteko aulkitxoa daukan gizontxoaren eskegitokiko kakoa da.



Esku bateko hatzamar guztiak eta
beste eskuko erpurua altzatuta daukadaz.



Seia da. Holan idazten da:



–Kerixatxoa, bere buztantxo ta guzti,
dirudi, ezta?

–Bai, ahatetxoaren ugazaba dan
belarritxo bakarra tximeleten hegoen antzera
daukan, eskegitokiko kako ondoan dagoan
aulkitxoan jesarten dan gizontxoak,
jango dauan kereixatxoa da.





Esku bateko hatzamar guztiak
eta beste eskuko erpurua
eta erakuslea
altzatuta daukadaz.

Zazpia da. Holan idazten da:






—Urradurea da. Zazpiak euki ere urradurearen itxurea dauka.

—Ahatetxoaren ugazaba dan, belarritxo bakarra tximeleten hegoen antzera daukan, eskegitako kakoaren ondoan dagoan aulkitxoan jesarrita dagoan gizontxoak, kereizatxoa jaten dauan bitartean prakan egin dauan urradurea da.



Esku bateko bost hatzamarrak
eta besteko erpurua, erakuslea
eta erdikoa altzatuta daukadaz.





Zortzia da. Holan idazten da:






—Bizikleta dirudi ezta?

—Bai, ahatetxoaren ugazaba dan, belarritxo bakarra tximeleten hegoen antzera daukan, eskegitokiko kako ondoan aulkitxoan jesarten dan, kereixak jaten dauzan eta prakea urratuta dauan gizontxoaren bizikleta da.





Esku bateko hatzamar guztiak eta besteko erpurua, erakuslea, erdikoa eta eraztunarena altzatuta daukadaz.

Bederatzia da. Holan idazten da:



–Kordel da guztiko puxikea dirudi.
–Ahatetxoaren ugazaba dan, belarritxo bakarra tximeleten hegoen antzera daukan, eskegitokiko kako ondoan aulkitxoan jesarten dan, urratuta eta paseatzeko bizikletea daukan gizontxoaren ondora hegaz joan dan puxikea da.





Esku bietako hatzamar guztiak
altzatuta daukadaz.



Hamarra da. Holan idazten da:



—Meloi handidun gizon argaltxoa da
eta meloia jan egin nahi dau, ze kereizatxoa
jan eta gero ere, gose da.
—Ba, hau da bat eta hau beste,
bardin da hau nahiz beste hau,
honek eskapa, horrek atrapa,
honek bira, hori begira
hau esarri mar-mar eta badira hamar.
Esango zeunke barriro?
Banan-banan, ikusi dozu?
Ondo zenbatu
eta kitu!









Kataluniar jatorrizko izenburua:
Dit a dit fan deu

© Jordi Vinyes, 1.989, testua.
© Montserrat Ginesta, 1.989, marrazkiak.
© La Galera, S.A. Editorial, 1.989
© Euskaraz: Elkar, S.A. 1.989
Eskuizkribatzaile: Joxemari Telleria
Lege gordailua: B. 28.865/1.989
I.S.B.N. 84-7529-719-6

Elkar. S.A. Argitaletxea
Esterlines 10-2º, 20003 Donostia
Tf.: 426319
Inprimatzaile: Indice, I.G.
Fluvià, 81-08019 Barcelona

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako
Kultura eta Turismo Sailaren
laguntza jaso du.

1. K. A.

1. Ahotsik bako aita
2. Trena eta ilargia
3. Hodei tripaundia
4. Deabruaren zubia
5. Semaforoa
6. Azeria eta arrainsaltzailea
7. Musar asmatzailea
8. Urlainoa poltsikoetan
9. Igel azkarra
10. Andere erraldoia eta bela baltza
11. Martarentzat eskutitza
12. Hatzamarrak, banan-banan, hamar

ISBN 84-7529-719-6

Sirena bilduma

9 788475 297194